

# SORGINXULO LESAKAKO KULTUR-BILGUNEA

## 26. BILERA AKTA

EGUNA: OTSAILAK 19, LARUNBATA

ORDUA: 9:30

TOKIA: HARRIONDOA KULTUR ETXEA – ZUMARRA GELA

### BERTARATUAK

OTXOGORRIENEA GURASO ELKARTEA TANTIRUMAIRU IKASTOLA  
BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLA  
GEROA BAI UDAL TALDEA  
MAIRU ANTZERKI TALDEA  
SAN FERMIN JUBILATU ELKARTEA  
TANTIRUMAIRU EUSKAL FOLKLORE TALDEA  
LESAKAKO ABESBATZA  
GILTZARRI ABESBATZA  
LESAKAKO MUSIKA ESKOLA  
LESAKAKO MUSIKA BANDA  
TRIKITIXA ELKARTEA  
LESAKAKO TXISTULARIAK  
EH BIDU TALDEA  
MIGUEL RODRIGUEZ IANTZI

### AINTZINAKO AKTA ONARTZEA

Onartzen da.

### AGENDA

Aurreikusita dauden ekitaldien errebasoa egiten da.

Inauterien egitaraua aipatzen da, Mattanez ortziraleko tailerren informazioa ematen du.

Apirilaren 8, 9, 10, Korrika hemendik pasako dela kontutan hartzea aipatzen da.

Maiatzaren 14an Nafarroako Gobernuko Bira Nafarroan Barna programaren barruan kontzertu bat programatuta dago. Giltzarrik aipatzen du egun horretan beraien Topaketa izanen dela. Kontzertuaren data aldatuko da ez koinziditzeko.

Haurrentzako programazioa faltan sumatzen da.

### DIRU-LAGUNTZAK 2022

Eragileekin bilerak egiten ari dira. 2021ean baino gehiago eskatu da beraz zerbait guttiago egokituko da. Zehaztasunak eragile bakoitzarekin aztertzen ari dira.

### MEMORIA 2021

Egiten ari den memoriaren zirriborroa partekatzen da.

Udako zikloan gehitu ezaugarriak, kalean, eta aniztasuna, eta auzolana eta kendu jendearen beldurra, ez du ezer aportatzen.

Diru-laguntzen atala ere sartu, jaso diren diru-laguntzak (Artea eta Kultura, Udal Platea Local, Euskarabide, Memoria...).

Liburu xuriaren pdf-a web orrian jarri.

Argazkiak atxikitzea ere ongi egonen zen.

2020koa ere egiten saiatuko da.

### KEZKAK ETA GALDERAK

- Partehartze prozesua – Alhondiga eraikina. Martxoaren 5ean Sorginxuloko kideak daude deituak. Bidaliko da deialdia.
- Miguel Rodriguez Iantzik, burutan hiru dokumental diituela aipatzen du: Xabier Erkiziarena, Arantxa Santesteban eta Oskar Alegriarena.